

# HERNANIK kronika


2003 urtea  
Uztailak 21  
Astelehena  
Alea: 829  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## 'Proyecto Hombre'k 18 urte daramazki Hernanin

■ 18 urte hauetan 1100 pertsona inguruk hasi eta bukatu dituzte programak Gizakia Helburuk Hernaniko Latsunbe auzoan duen zentroan.

■ Orain Gizakia Helburura jotzen duten gehienak gazteak dira, eta estasia, anfetamina, kokaina eta beste hainbat drogekin dauzkate arazoak.

■ Droga horiek uztea da lehenengo lana. Ondoren lan pertsonala egiten da eta hor lantzen dituzte: harreman afektiboak, bizi tzari aurre egiteko gaitasuna eta abar.



Hernaniko Gizakia Helburuko jolas eta bilera gelan bilarrean jolasten.

DUELA 18 urte jarri zuen martxan Gizakia Helburuk Hernaniko Latsunbe auzoan duen zentroa. Batez ere kokaina eta sintesi drogek sortutako dependentziekin arazoak dituzten gazteekin lan egiten dute, hori da gaur egun drogekin arazo gehiena duen sektorea.

### Pertsona da lehenengo

Jose Mari Izetak, terapia trinkoko eta komunitateko arduradunak dioenez, Gizakia Helburun drogei garrantzia gutxi ematen zaie, kontutan hartu beharrekoa da drogen atzean zailtasunak dituen pertsona dagoela eta pertsona horiek dituzten dependentziak eta ahuleziak ez direla drogek bakarrik sortuak, pertsona horren harreman afektiboak ere eragin handia dute.

Hori dela eta arazoak dituen pertsonari esaten zaio drogak hartzen zituen inguruarekin moztu egin behar due-

la, eta beste inguru berri bat eskaintzen zaio Gizartea Helburuko komunitatearen barruan. "Gazte bati ezin zaio esan lagunekin ez ibiltzeko, gutxienez beste lagun batzuk

"Drogak betidanik egon dira gizartean baina orain oso era konpultsiboan kontsumitzen dira"

JOSE MARI IZETA

egiteko aukera eman behar zaio" dio Jose Mari Izetak. Gizarteratze prozesuan ere pertsona horri harreman berriak egiteko bideak jartzeko.

### Gaixoak

Kalean Gizakia Helburura jotzen dutenak gaisoak direla pentsatzen da baina Josu

Izetak dioenez "hauek ez dira gaixoak, ez gaixo tradizionalak behintzat. Gaixoari protagonismoa kendumen egiten zaio, berak ezer jakingo ez balu bezala tratatzan da. Baina gure tratamenduetan pentsatzen dugu pertsona horrek sendatzeko prozesuan protagonismoa izan behar duela".

Tratamendua gidatzen ari direnak unibertsitate ikasketak dituzten terapeutak dira, edo lehenago terapia jarraitu duten pertsonak. "Beren bitzitzera ikasketak egin eta terapeuta bihurtzen dira batzuk, horrela terapia jarraitzen dutenek badute erreferentzia bat, ikusten dutelako aurrean dutena gai izan dela arazoarekin bukatzeko" esaten du Jose Mari Izetak.

### Drogen egungo egoeraz

Gaur egun drogak konpultsiboki kontsumitzen direla dio Jose Mari Izetak "drogak betidanik egon dira gizartean

### HIRU PROGRAMA

#### ■ Ohizko Programa

Heroinareniko menpekotasuna eta gizarte-integrazio gutxi duten pertsonei zuzendua dago.

Donostian, Lasaon eta Usurbilen daude perfil honetarako zentrua.

#### ■ Programa trinkoa

Kokaina edota sintesi-drogak hartzeagatik arazoak izan dituztenei zuzenduta dago, ez dira pertsona marginatuak. Drogak eragindako ansietatea, psikosiak, depresioak, eta abar izaten dituzte.

Hernanin dago perfil honetarako programa.

#### ■ Programa irekia

Beren kabuz drogen kontsumoa alde batera uzteko gai direnei zuzendua, ez dute hainbesteko kontrolik behar.

Hernanin dago perfil honetarako programa.

### PROGRAMEN FASEAK

#### ■ Harrera

Diagnosiaren bidez pertsonaren egoera psikikoa ezagutzen da. Drogak utzi eta drogak kontsumitzen zituen ingurunearekin harremana moztutzen da. Arazoa norbera dela konturatzen dira eta ez droga.

4 hilabete irauten du.

#### ■ Komunitadea

Komunitate batean bizitzen hasten dira eta beren burua hobeto ezagutzea eta indartzea da helburua. Ohiko programan ez dira zentrutik ateratzen, baina trinkoan astebukaeretan etxera joaten dira.

9 hilabete irauten du

#### ■ Gizarteratzea

Programaren bukaeran zentrua utzi eta gizartera itzuli behar du. Horretarako laguntza jasotzen dute.

9 hilabete irauten du.

baina momentu honetan gazteek era konpultsiboan kontsumitzen dituzte drogak eta kontratzerako burua pitzatuta dute. Gainera gazteek drogen bidez sentsazio fuerteak bilatzen dituzte eta hori nire iritziz gauzak apreziatzeko sentsibilitatea galdu delako da".

Duela urte bete terapia hasi zuen gazte batek dio "jendea hemen oso gaztea da, eta pasti eta droga sintetikoekin burua

jota dute askok. Lehen heroina zen. Orain droga sintetikoak dira nagusi". Gizakia Helburun biziak esperientziari buruz dio "nik dena niretseko gordezen nuen pertsona nintzen, arazo aurrean ez nuen aurpegia ematen baina orain pertsona bezala indartu egin naiz. Drogak ihesbide bezala ezin dira erabiliz, arazo bat bidaukazu konpartitu egin behar da eta laguntha eskatu". □

Argitarapen honen laguntzaile:  
**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

Hernaniko kronikako laguntzaile:  
**ORAUNE PROMOZIOAK**

Asesoria  
**HATOR**  
Asegurua  
Fiskala Laborala Kontablea Administratiboa  
Kardaberaz 60  
Tel.: 943 55 43 12  
20120 Hernani

**DORRONSORO**  
OKINDEGIA

J.Dorronsoro Okindegia, S.L.  
Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Bertan egindako kalitatezko ogia

## ZAHARREN EGOITZA - MADALENA JAIAK GAURTIK OSTEGUNERA



Orain bi urteko Madalena eguneko bazkari berezia.

## Madalenei hasiera emateko gaur Igel txapelketa eta bihar Bingo Berezia

■ Madalenak gaurtik ostegunera izango dira Zaharren Egoitzan ■ Bingo Bereziak bilduko du aurten ere jende gehienia ■ Gainera: txapelketak, diapositibak...

UZTAILAREN 22a da Santa Maria Madalena eguna, eta urtero festa izaten dute Hernaniko Zaharren Egoitzan. Aurten ere lau eguneko jaiak presztatu dituzte Egoitzako patroia-ren eguna ospatzeko, eta gaur hasi eta osteguna bitartean lutzatuko dira.

**Bingo Madalena egunean**  
Madalena eguna bera izaten da egun haundi Zaharren Egoitzako festetan, besteari beste goizean goizetik hasi eta gauera bitarte festa izaten delako, edo eguerdian bazkari berezia izaten dutelako. Baino, arratsaldeko Bingo Berezia da arrakasta haundiaren duen ekintza. Askok hartzen duen parte Bingo Berezian eta

saltza oso polita sortzen da Egoitzan.

### Toka, Domino eta Igel txapelketak

Madalena jaietako beste berezitasun bat txapelketena da. 3 txapelketa dauzkate: gaur Igel Txapelketa eta ostegunean Toka eta Domino Txapelketak. Horretaz gainera, gaur merienda dute; bihar txistulariak eta Meza Nagusia, eta asteazkenean San Joanetako Diapositibak ikusteko aukera.

### Urtean zehar 6-7 festa

Urtean 6-7 festa ospatzentzituzte Zaharren Egoitzan (Iñauteriak, Gabonak, San Joanak, Madalenak...), eta denetan iza-tentzitzen dute oso giro ona. □

## EGITARAUA

### UZTAILAK 21, ASTELEHENA

10:30 Igel Txapelketa.

16:30 Merienda.

### UZTAILAK 22, ASTEARTEA

09:30 Txistulariekin Diana.

12:00 Meza Nagusia.

13:00 Bazkari Berezia.

18:30 Bingo Berezia.

### UZTAILAK 23, ASTEAZKENA

17:30 San Joanetako Diapositibak.

### UZTAILAK 24, OSTEGRUNA

10:30 Toka Txapelketa.

17:30 Domino Txapelketa.

## GOBERNU BATZORDEA BIHAR

### Hamar puntu mahai gainean, bihar, legislaturako aurreneko Gobernu Batzordean

LEGISLATURAKO lehendabiziko Gobernu Batzordea egingo dute bihar Udaletxearen. Puntuen artean daude, Gobernu Batzordea bera eratzea eta kontratazio mahaia izendatzea. Badira beste 7 puntu ere, eta Gobernu Batzordeak esan behar du, presaz erabaki beharrekoak diren. Horien artean daude, besteari beste, datorren ikasturteko Biteri kultur etxeko ikastaroak, eta haurtzaindegiko tasa finkatzeko kasu bereziak.

Gobernu Batzordea bihar izango da, uztailak 22, asteartea, arratsaldeko 17:30etan Udaletxearen. □

## MENDIRIZ-MENDI

### Izena emateko azken aukera gaur dauka 'Picos de Europa'-ko bidaia joan nahi duenak

MENDIRIZ Mendik irteera antolatu du *Picos de Europa*, datorren astebururako. Irteerara joan nahi duenak gaur dauka azken aukera izena emateko, Mendiriz Mendiko lokalean bertan (Iturregi plaza), 20:00etatik 21:00etara. Prezioak: bazkideentzat 40 euro eta bazkide ez direnenentzat 50.

Bidaia uztailaren 25etik 27ra egingo da, eta egunero mendi buelta egiteko asmoa dago. Trabesian pasako dituzte, Fuent de, Vega de Liordes, Vega de Urriello eta Sotres. Autobusa Atsegindigetik abiatuko da ostiralean, goizeko 06:00etan. □

## SANTIO JAIAK ASTIGARRAGAN



Joan den urteko idi probak, Astigarragako plazan.

## Asteazkenean hasiko dira Santio jaiak Astigarragan

■ Oihana Blancok botako du aurtengo Txupinazoa.

ASTEAKENEAN hasiko dira Astigarragako Santio jaiak, eta ekitaldiz gainezka dago programa. Hasierako Txupinazoa botatzeko ohorea Oihana Blanco judoka gazteak izango du, azken urteetan egiten ari den denboraldi onengatik. Antzerkiak, kontzertuak, herri kirolak, pailazoak, buruhaundiak, abentura kirolak, soka-muturra, eta beste ekitaldi asko daude programatuta, eta festa giro espeziala espero dute. □

## SANTIAGO JAIAK ARANON



Joan den urtean jendea dantzan.

## Ia dena prest Aranon, ostegunean Santiago jaiei hasiera emateko

■ Alkateak botako du Txupinazoa ostegunean.

OSTEGUNEAN hasiko dira aurtengo Aranoko Santiago jaiak. Urtero bezala, hor izango dira herri kirolak, Goizuetta eta Aranoren arteko pelota partiduak, Jubilatuen bazka-ria, bertsos saioak, umeentzako jokuak, oilasko jatea, eta abar. Eta iazko arrakasta iksita, aurten ere jende asko espero da Artzai txakurren erakustaldian, igandean. □

## IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukaldetza eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

## GALDUTAKOAK

Txakur kumea galdu da Osiñaga inguruan. Arratoi txakurra da, marroi zista eta arra. Bilatzen duenak deitu 943 580820 telefonora.

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

► Taxiak:

943 550093

► Udalzaingoa:

943 333288

► DYA:

943 464622

► Anbulutorioa:

943 006666

► Jokalarri anonoimoenak:

943 331103

### FARMAZIAK

### ASTELEHENA

► Egunez: Chucla Kardaberaz 48

☎ 943 551793

► Gauez: Orue Lasarte. Jaizkibel pl. 2

☎ 943 362652

### ASTEARTEA

► Egunez: Bulnes Florida auzoa

☎ 943 557738

► Gauez: Gil Lasarte. Nagusia 24

☎ 943 361529